

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Patxi Villamor Fernandez*

*Gasteiz, Araba  
(1955)*

Aurkibidea



## Biografia



Kantautore gasteiztarra. 70eko hamarkadan euskaraz abesten zutenetako bat zen Villamor, lehenengotarikoa Araban. Bittor Kapanagarekin harremana izan zuen, eta hari buruzko dokumentalerako egin zitzaion elkarrizketa labur hau.

## Zintak

### GAS-001

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-23
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Kantuen letrak hobetzera Bittorregana

- **Erref:** GAS-001/002
- **Iraupena:** 0:05:24. **Hasi:** 00:00:36. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika

#### Laburpena:

<p>Euskara Bittor Kapanagarentzat bere nobietariko bat zen. Abertzalea zen, baina garbi zuen bere ekarpena euskararen bidetik eroan behar zuela. Gaztetan, sarri joaten ziren Gasteiztik Otxandiora, eta orduan ezagutu zuen Bittor. Kantak sortzen zituenean, Bittorregana jotzen zuten euskara eta abar hobetzeko. Letrak politizatuak zeuden orduan, eta Bittor horrekin ados zen. Horretaz gain, bere grinak eta zaletasunak azaltzen zizkion Bittorrek. Inportantzia handia ematen zion mendebaldeko euskarari.</p>

### 2. Bittor Kapanaga: pertsona bakartia eta hausnarkaria

- **Erref:** GAS-001/003
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:09:07

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

<p>Pertsona bakartia eta hausnarkaria zen. Maisua. Asteko egunekin ere sarri aritzen zen. Txundituta uzten zuen. Ezagutzen duzuna maitatzen duzu. Oletako baserrira joan, eta supazter ondoan eseri eta berriketan eta kantuak sortzen ematen zuten denbora. Inspirazio handia zuen. Berehala sortzen zituen kantak. Geroago ere joaten zitzaion Otxandioko etxera.</p>

### 3. Bittor Kapanaga bihotzean

- **Erref:** GAS-001/004
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

<p>Azken harremanak Otxandioko zaharretxean izan zituzten. Gainbehera zetorren ordurako. Bittor beste ezer baino gehiago, pertsona bezala maite du. Bittor pertsonak askoz ere inportantzia handiagoa du haren ekarpenak baino. Abertzalea da lurra maite duena, eta zentzu horretan bazen abertzalea. Bittor gure bihotzean egongo da betirako.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
2024-05-14

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com